


Diseinatu zure proiektuarentzako hedatze plana



LNZtik jarraibide eta gomendio batzuk ematen dizkizugu, zure eTwinning proiekturako hedatze plan on bat nola egin azaltzeko:

1) Zure proiektua ezagutzera eman

- Zure proiektuaren inpaktua areagotzen du, emaitzak ezagutzera ematen dituelako.
- Zure proiektua inspirazio-iturri izan daiteke Europako beste irakasle batzuentzat.

- Ikastetxearen ahalegina aintzatetsiko da.

2) Diseinatu zure hedatze plana


Hedatze plana egitea proiektuko kide guztiek partekatutako zeregina izango da, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta proiektuaren garapen-aldi osoan eta ondoren. Adostu zeregin errealistak, bai zuen ikastetxearen barruan, bai kanpoan (beste hedabide batzuetan), albiste baten 7 gako-galderei erantzuteko:

Nork? Zer? Non? Noiz? Nola? Zenbat? Zergatik?



3) Eraitza ukigarri eta ukiezinez gain, hedatu beste eduki batzuk

- Kide, irakasle eta ikasleen arteko komunikazio-estrategia.



- Segurtasun-plana: netiketa, familien baimenak, irudi askeak, erabilera-lizentziak.

- Ebaluazio-plana:
 - Tresnak: portafolioak, formularioak eta inkestak, Likert eskala
 - Ebaluazio-uneak
 - Errubrikak

4) Talde hartzaileak eta nola hedatu

- Aurkeztu proiektua ikasleei, irakasleei, familiei, ikuskatzaileei, hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuei, beste langile batzuei, agintariei, beste hezkuntza-erakunde batzuei, irakasleen hezkuntza- eta prestakuntza-erakundeei eta komunikabideei (tokiko irratia eta telebista, tokiko edo eskualdeko prentsa, helmenaren arabera).



- Egokitu mezuaren forma eta edukia talde hartzaile bakoitzera. Erabili hizkuntza bat baino gehiago, hala badagokio.
- Erabili eskura dituzuen bitartekoak eta baliabideak: TwinSpace, eTwinning-eko kontaktuak, eTwinning txokoa ikastetxean, bilerak, sare sozialak, biltzarrak, mintegiak, hitzaldiak, ate irekien jardunaldia, egun tematikoak, buletinak, liburuxkak, gelako bloga, ikastetxearen webgunea, prentsa, etab.

a. Denboralizazioa

- Proiektua hasi baino lehen: hedatze plana. Digitalagoa, berdeagoa eta inklusiboagoa egin ezazue.
- Proiektua garatu bitartean: eTwinning txokoa, klaustroa, eskola-kontseilua, orrialde instituzionala, sare sozialak, etab.
- Ondoren: emaitzak, inpaktuaren ebaluazioa.-----



5) Datuen babesa eta lizentziak

- Erabili lizentzia irekiak. Era horretan, beste erabiltzaile batzuek sortutako baliabide eta material guztiak erabiltzeko aukera izango dute.
- Utzi jardueradun orrialde guztietarako sarbide irekia, parte-hartzaileen pribatutasuna arriskuan jartzen ez badute.

6) Baliabideak

- eTwinning Laguntza Zerbitzu Nazionalaren argitalpenak
- Bideoak
- Buletin nazionala, Europako buletina
- eTwinning liburua
- *eTwinning Weeks* / eTwinning asteak direlakoak
- Infografiak: *Canva*, *Genially*, *Piktochart*, *Easel*, *Parchment*

- Liburuxka eta argitalpenak, posterrak

7) Jardunbide egokiak hedatzeko espazioak

Hedatzea ikastetxeko komunikazio-kanaletan egin dezakezue: posta elektronikoa, bloga, webgunea, sare sozialak, etab.

Twitter, Facebook eta Youtubeko LZNren kontu ofizialetatik jardunbide egokien eta proiektu nabarmenen berri ematen da. Jar zaitez gurekin harremanetan:



Twitter: @eTwinning_es



Facebook: @eTwinning.esp



Youtube: eTwinning España